# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA KULTURA SAILA

### Zk-4736

263/1998 DEKRETUA, urriaren 6koa, Euskararen Gaitasun Agiriaren eta irakaspostuetarako Hizkuntz Eskakizunen baliokidetzak finkatu, eguneratu eta berresten dituena.

Euskaltzaindiaren D tituluaren jarraipen gisa Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) sortu zenetik (1982/4/22ko Agindua, 1982/5/4ko EHAAn argitaratua eta 1982/9/20ko Agindua, 1982/11/6ko EHAAn argitaratua) hainbat baliokidetza ezarri izan zaizkio urteetan zehar Agiri honi, beste hainbat arau-xedapenen bidez, esate baterako Euskal Filologiako karrerarekin, hizkuntza eskola ofizialetako euskal ikasketen gaitasunmailarekin eta abar. Xedapen horiek data desberdinetako testuetan barreiaturik daude, ordea, eta gertaera horrek bilatze-lana zaildu egiten du. Horregatik, arauzko erabaki horiek bildu egin dira dekretu honetan, erreferentzia bakar bat eskaintzeko. Biltzeaz gainera, zenbait kasutan eguneratu ere egiten da oraingoan baliokidetza horien balio-esparrua.

Bestetik, Euskal Irakasleen Kidegoei buruzko 2/1993 Legeak bere 53.2 atalean ezarritakoaren arabera Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ematen dituen hizkuntzazko egiaztagiri desberdinak irakasleen hizkuntz eskakizunekin baliokidetzeko eta parekatzeko sistema egoki bat ezarri beharra zegoen. Martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuaren bidez egin zen lehenik baliokidetze hori. Dekretu horren indar-hartze eguna, 1993ko apirilaren 3a, baliokidetza horien azken muga-egun ere bilakatu zen ordea. Gero, muga horrek zekartzan arazoak konponbidean jartzeko martxoaren 10eko 42/1998 Dekretua eman zen, aurrekoa (47/1993koa, alegia) aldatuz eta EGAren eta bere parekoen baliokidetzarako muga-egun berri bat ezarriz: 1998ko abenduaren 31koa hain zuzen ere.

Era berean, kontuan hartzekoa da apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri-administrazioetan euskararen erabilera normaltzeko prozesua arautzen duenak, bere 41. atalean baliokidetza batzuk ezartzen dituela bere esparruan.

42/1998 Dekretuak agintzen duenaren ildotik, bestalde, HE2ko curriculuma eta irizpideak berrikusteko azterlana egin berria du Hezkuntza, Unibertsitate eta

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN DEPARTAMENTO DE CULTURA

### N°-4736

DECRETO 263/1998, de 6 de octubre, por el que se establecen, actualizan y ratifican las equivalencias del Certificado de Conocimiento del Euskera EGA y los Perfiles Lingüísticos del profesorado.

Desde que, como continuación del título D de Euskaltzaindia, se creara el Certificado de Conocimiento del Euskera EGA (Orden de 22-4-1982 publicada en el BOPV de 4-5-82 y Orden de 20-9-1982 publicada en el BOPV de 6-11-82) el Departamento de Educación, Universidades e Investigación ha establecido diversas equivalencias para dicho certificado mediante las correspondientes disposiciones normativas. Así, por ejemplo, con la licenciatura de Filología Vasca, con el nivel de aptitud de euskera de las escuelas oficiales de idiomas etc. Dichas disposiciones normativas, sin embargo, se hallan a menudo dispersas en textos de muy diferente fecha con la consiguiente dificultad para su localización. Es por ello que se recogen esas disposiciones en este Decreto a fin de ofrecer una base de una referencia única. Además de recopilar tales disposiciones, en algunos casos se ha actualizado en el presente Decreto el ámbito de validez de dichas equivalencias.

Por otra parte, y según lo establecido en el artículo 53.2 de la Ley 2/1993 de Cuerpos docentes, era necesario establecer un sistema adecuado de equivalencias para los diferentes certificados lingüísticos expedidos por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación con los perfiles lingüísticos docentes. Las equivalencias se establecieron primeramente mediante el Decreto 47/1993 de 9 de marzo. Sin embargo, la fecha de entrada en vigor del citado Decreto, 3 de abril de 1993, se convirtió igualmente en fecha de vencimiento de tales equivalencias. Posteriormente, y a fin de solucionar los problemas más urgentes derivados de dicha limitación se publicó el Decreto 42/1998 de 10 de marzo que modificaba el anterior (Decreto 47/1993) y establecía de nuevo una fecha de vencimiento para la convalidación de EGA y sus equivalentes: 31 de diciembre de 1998.

Asimismo, hay que tener en cuenta que el Decreto 86/1997 de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la CAV, establece en su artículo 41 ciertas convalidaciones de acreditación idiomática en su particular ámbito de aplicación.

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación ha realizado, por otro lado, el estudio de revisión del curriculum y criterios de valoración del PL2

Ikerketa Sailak. Horren ondorioz, egoki ikusi da aurreko bi dekretuek ezartzen zuten EGAren eta Irakasleen HE2ren arteko baliokidetza berretsi eta finkotzat ematea.

Bestetik, garai bateko IGA, GUMA eta EIT ez dira dekretu honen xedapen-zatian aipatzen. Horiek irakasleen kasuan kasuko hizkuntz eskakizunarekin baliokidetzeko aukera 47/1993 Dekretuan finkatu zen, 42/1998 Dekretuaren idazkuntzaren arabera zehaztu zelarik, eta zehaztapen-lan horri jadanik amaiera eman zaio. Gaur egun ez da, gainera, ez IGArik eta ez GUMArik luzatzen.

Azkenik, HE1en kasuan ere oinarrizko baliokidea finkatu nahi izan da dekretu honen bidez.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren eta Kultura sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1998ko urriaren 6an egindako bilkuran berariaz aztertu eta onartu ondoren hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.–* Euskararen Gaitasun Agiriaren (EGAren) baliokide dira ondoko multzootan zehazten diren titulu eta egiaztagiriak (dekretu honetan izartxo bidez adierazten direnak balio-aitormenak dira):

1. multzoa: EGA eta bere aurrekoak.

– Euskaltzaindiaren D titulua.

– Nafarroako Gobernuaren EGA agiria (eta Nafarroako Gobernuak bere aginte-esparruan finkaturik dituen EGAren baliokideak).

– Labayru Ikastegiko 3. mailako agiria (1982ko irailaren 19a baino lehen emana).

2. multzoa: EAEko eta Madrilgo Hizkuntza Eskola Ofizialak.

– EAEko hizkuntza eskola ofizialetako euskal gaitasun-maila.

– Madrilgo Hizkuntza Eskola Ofizial Nagusiko euskal gaitasun-maila.

3. multzoa: euskal filologiako ikasketak.

– Euskal Filologiako lizentziatura*.

– Euskal Filologiaren alorreko irakasle-diplomatura*.

4. multzoa: euskarazko irakasle-tituluak.

– Bizkaiko Irakasleen Unibertsitate Eskola Publikoan euskal adarren batean egindako irakasle-diplomatura, 1985ean edo handik aurrera lortua denean*.

– Gipuzkoako Irakasleen Unibertsitate Eskola Publikoan euskal adarren batean egindako irakasle-diplomatura, 1985ean edo handik aurrera lortua denean*.

señalado por el Decreto 42/1998. En consecuencia, se estima oportuno ratificar y considerar definitiva la equivalencia entre EGA y el PL2 docente establecida por los dos Decretos anteriores.

Por otra parte no se hace mención de los antiguos niveles IGA y GUMA, ni de EIT en la parte dispositiva de este decreto. La posibilidad de convalidación de éstos con los correspondientes perfiles lingüísticos docentes se estableció en el Decreto 47/1993, quedando precisada en la redacción del Decreto 42/1998, por lo que ya se halla culminada aquella definición de equivalencias. De hecho, en la actualidad no se certifican los niveles IGA o GUMA.

Finalmente, en lo concerniente al perfil PL1 se ha resuelto igualmente establecer una equivalencia básica a través del presente decreto.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación y de la Consejera de Cultura, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 6 de octubre de 1998,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Son equivalentes del Certificado de Conocimiento del Euskera EGA los títulos y certificaciones que se señalan en los siguientes apartados (los señalados con asterisco a lo largo del decreto son reconocimientos de nivel):

1.$^{er}$ grupo: EGA y precedentes.

– Título D de Euskaltzaindia.

– Certificado EGA del Gobierno de Navarra (y aquellas equivalencias de EGA que el Gobierno de Navarra tenga establecidas en su ámbito)

– Certificado de 3.$^{er}$ nivel del Instituto Labayru (expedido en fecha no posterior al 19 de septiembre de 1982)

2.º grupo: Escuelas Oficiales de Idiomas de la CAV y de Madrid.

– Certificado de Aptitud de euskera de las escuelas oficiales de idiomas de la CAV.

– Certificado de Aptitud de euskera de la Escuela Oficial Central de Idiomas de Madrid.

3.$^{er}$ grupo: estudios de filología vasca.

– Licenciatura de Filología Vasca*.

– Diplomatura de Magisterio en la especialidad de Filología Vasca*.

4.º grupo: diplomaturas de magisterio en euskera.

– Diplomatura de Magisterio cursada en euskera en la Escuela Pública de Magisterio de Bizkaia obtenida en 1985 o fecha posterior*.

– Diplomatura de Magisterio cursada en euskera en la Escuela Pública de Magisterio de Gipuzkoa, obtenida en 1985 o fecha posterior*.

– Donostiako OHOko Irakaslegoaren Elizbarrutiko Irakasle Eskolan euskal adarren batean egindako irakasle-diplomatura, 1984an edo handik aurrera lortua denean* (Eskola hau itxita dago gaur egun).

– Eskoriatzako OHOrako Irakaslegoaren Unibertsitate Eskolan euskal adarren batean egindako irakasle-diplomatura, 1984an edo handik aurrera lortua denean*.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak lau irakasle-eskolotako tituludunei baliokidetza hori aitortu ahal izateko, EHAAk zehazten duen tramitazioa (1984/6/26ko Aginduaren lehen atala, 1984/7/9ko EHAAn, eta 1985/3/4ko Aginduaren lehen atala, 1985/5/8ko EHAAn) edo bere ordez ezartzen dena burutu behar dute kasuan kasuko irakasle-eskola horiek.

5. multzoa: Hizkuntz Eskakizunak.

– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren irakasleen 2. Hizkuntz Eskakizuna (HE2) (azterketa bidez lortua denean).

– EAEko Administrazio Orokorreko 3. Hizkuntz Eskakizuna (HE3) (azterketa bidez lortua denean).

*2. atala.–* Euskal irakas-sisteman ezarri diren hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko, baliokidetzat joko dira honako hauek:

2.1.– Irakasleen 2. Hizkuntz Eskakizunaren baliokidea:

EGA (eta bere baliokideak).

2.2.– Irakasleen 1. Hizkuntz Eskakizunaren baliokidea:

EAEko hizkuntza eskola ofizialetako euskal ikasketen 4. maila gainditua izatea.

*3. atala.–* Dekretu honen 1. atalean aipatzen diren baliokidetzei dagokienez, titulu eta egiaztagiri horiek ziurtatzen duten euskara-maila egokia dela bermatzeko beharrezko neurriak har ditzake Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak. Maila hori egokia ez dela egiaztatuz gero, handik aurrerako titulu-egiaztagirien kasuan dagokion baliokidetza indargabeturik utzi ahal izango du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena.–* Baimena ematen zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari dekretu honetan ezarritakoa bete eta garatzeko xedapenak emateko.

*Bigarrena.–* Honako arau hauek indargabetuta uzten dira:

– 42/1998 Dekretuaren atal bakarraren 2. puntua (EHAA: 1998/3/24);

– 1982/9/20ko Aginduaren 30. atalaren 1. puntuaren lehen pasartea eta 32. atalaren lehen pasartea (EHAA: 1982/11/6);

– Diplomatura de Magisterio cursada en euskera en la Escuela Diocesana de Magisterio de San Sebastián, obtenida en 1984 o fecha posterior * (esta escuela está cerrada en la actualidad).

– Diplomatura de Magisterio cursada en euskera en la Escuela de Magisterio de Eskoriatza, obtenida en 1984 o fecha posterior*.

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación procederá a reconocer esta equivalencia a los titulados/as de estas cuatro escuelas de magisterio una vez estas escuelas completen la tramitación que se señala en el BOPV (Orden del 26-6-84 en el BOPV de 9-7-84 y Orden del 4-3-85 en el BOPV del 8-5-85) u otra que en su día se establezca.

5.º grupo: Perfíles Lingüísticos.

– el Perfil Lingüístico 2 para el profesorado del Departamento de Educación, Universidades e Investigación (obtenido mediante examen).

– el Perfil Lingüístico 3 de la Administración General de la CAV (obtenido mediante examen).

*Artículo 2.–* Son equivalentes de los Perfiles Lingüísticos del profesorado las siguientes acreditaciones:

2.1.– Equivalentes de Perfil Lingüístico 2 del profesorado:

EGA (y equivalentes)

2.2.– Equivalentes de Perfil Lingüístico 1 del profesorado:

4.º curso de euskera de las escuelas oficiales de idiomas de la CAV.

*Artículo 3.–* El Departamento de Educación, Universidades e Investigación podrá adoptar las medidas oportunas para garantizar el correcto nivel de competencia idiomática certificado por estos títulos y certificaciones. Caso de evidenciarse un nivel insuficiente, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación podrá anular la validez de la equivalencia correspondiente para aquellos certificados y títulos expedidos en fecha posterior.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se autoriza al consejero de Educación, Universidades e Investigación para dictar las disposiciones necesarias para la ejecución y desarrollo de lo establecido en el presente Decreto.

*Segunda.–* Quedan derogadas las siguientes disposiciones:

– el punto 2.º del artículo único del Decreto 42/1998 (BOPV: 24/3/1998);

– el primer párrafo del punto 1 del artículo 30 y el primer párrafo del artículo 32 de la Orden de 20/9/1982 (BOPV: 6/11/1982);

– 1984/1/12ko Aginduaren 1. atala (EHAA: 1984/3/23);

– 1984/6/26ko Aginduaren 2. atala (EHAA: 1984/7/9);

– 1986/2/19ko Agindua (EHAA: 1986/3/10);

– 1991/11/15eko Aginduaren 1. atala (EHAA: 1991/12/4);

– 1996/1/5eko Agindua (EHAA: 1996/2/8);

– 1997/2/14ko Aginduaren 1. atala (EHAA: 1997/3/24).

Hauetaz gain, dekretu honetan xedatutakoaren aurka leudekeen neurrian maila bereko edo apalagoko beste arau guztiak indargabetuta uzten dira.

*Hirugarrena.–* Dekretu hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko urriaren 6an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

Kultura sailburua,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

– el artículo 1 de la Orden de 12/1/1984 (BOPV: 23/3/1984);

– el artículo 2 de la Orden de 26/6/1984 (BOPV: 9/7/1984);

– la Orden de 19/2/1986 (BOPV: 10/3/1986);

– el artículo 1 de la Orden de 15/11/1991 (BOPV: 4/12/1991);

– la Orden de 5/1/1996 (BOPV: 8/2/1996);

– el artículo 1 de la Orden de 14/2/1997 (BOPV: 24/3/1997).

Igualmente quedan derogadas cuantas normas de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en el presente Decreto.

*Tercera.–* El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 6 de octubre de 1998.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Educación,
Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

La Consejera de Cultura,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

### Zk-4737

ERABAKIA, 1998ko urriaren 2koa,Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearena, Clara Isabel Asúa González andrea, «Zuzenbide Zibila» jakintza-arloko Unibertsitateko Katedraduna izendatzeko dena. Plaza horretarako deialdia 1997ko urtarrilaren 22ko (otsailaren 10eko «Estatuko Buletin Ofiziala») Erabakiaren bidez egin zen.

Unibertsitate-Erreformarako abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoaren 42. artikuluan eta berau garatzen duten gainerako xedapenetan ezarririkoaren arabera, eta interesatuak, 13. artikuluaren 1. puntuan ezarririko epean, irailaren 26ko 1888/1984 Erret Dek-

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

### N°-4737

RESOLUCIÓN de 2 de octubre de 1998, de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se nombra Catedrática de Universidad a Doña Clara Isabel Asúa González, en el área de conocimiento: «Derecho Civil», cuya plaza fue convocada por Resolución de 22 de enero de 1997 («Boletín Oficial del Estado» de 10 de febrero).

De conformidad con la propuesta de la comisión nombrada por Resolución Rectoral de 13 de marzo de 1998 («Boletín Oficial del Estado» de 11 de abril) para juzgar el concurso para la provisión de una plaza de Catedrático de Universidad, convocada por Resolución